
1907

Euskal-itz jostaldien Batzarrea

(Euskal-festen XXVI-garren urtea)

ELGOIBAR-KO EUSKAL-FESTAK

EUSKAL-ITZ-JOSTALDIENEGINTZA

Euskal-itz-jostaldien Batzarrea dator gaur Elgoibarra, kontu ematera leku ontan arkitzen diran entzule guztiai, zer nolakoa dan, aurten, izkribatzalle eta musikarieren indar-neurtzeetan, batzar epalle bereziak erabaki duten sari emaldia.

Arreka aundiz ikusi ondorean aurkeztu diran moldaera guziak, irabazi dituzte sariyak, izkribatzalleen artean On Gregorio Mujika, On Jose Ignazio Garmendia eta On Jose Eiizondo-k, Elgoibar-ko albiste kondairatsuak, Euskal-Erria eta Idartzako Jauna izendatzen diranagatik.

Irabazi dituzte aldeerak On Juan Jose Belaustegi, On Jose Ignazio Garmendia, On Ramón Gelbenzu, On Kayetano S. Irure, On Jose Artola eta On Santiago Ezenarro-k, Elgoibar-ko erriaren kon-

daira laburchoa, Gipuzkoa-ko bei aberen obetza, ¡Gasua! Gure mendiyak, Mocha erriyan eta Elgoibar-ko Eleizachoak **izentzat dituztenen gatik.**

Irabazi du aipamen onragarria On Jose Elizondo-k Udaberriko goizbak **izendatutako moldaera gatik eta gañera eman zayo indar-neurtzez kanpora aipamen onragarribat On Juan Ignazio Uranga-ri** Biyotza **izendatua eta bilguma beraziaren dianagusiari donkitutako itzneurtzagatik.**

Musikalarien artean irabazi dituzte sariyak On Jose Maria Usandizaga, On Ignazio Bereziartua, On Jose Olaizola-tarra eta On Valentin Larrea Iturbe-k Bidasoa, Burruntzalia, Nere aberri'ko loreak eta Euskeria **azalkaitzat dituzten zortziko eta euskal kanta moldaerazetik.**

Elgoibarren, 1907-ko Uztailaren 28-an

Batzarrearen izenian,

Dianagusia,

Goarpelaria,

ALFREDO LAFFITTE-TAR ETA OBINETA.

TORIBIO ALZAGA.

